Ongi etorri Hernanira!

نرحب بكم في هِرْنَني!



BALIABIDEEN GIDA دليل موارد

Hernaniko Udala

Gida hau zure esku artera iritsi bada, ziurrenik, azken hilabete hauetan Hernanira bizitzera etorri zarelako izango da. Lehenik eta behin, ongi etorri!

Hernanik Harrera Herria izatearen erronkari eutsi dio. Izan ere, pertsona orok mugimendurako eskubidea dugu, eta mugitu izan gara, bai gaur egun eta baita historian zehar ere. Bai mundu zabalean, baita gurean ere. Euskal Herrian zein Hernanin.

Herri hau guztiona bezain zurea sentitzea nahi dugu, herriaz gozatzea eta denon artean Hernani bizigarriago bat egiten jarraitzea.

Gida honetan herriko baliabide eta informazioa aurkituko duzu. Alde batetik, oinarrizko beharretarako informazioa gehitu dugu gidan, oinarrizko beharrak eta oinarrizko eskubideak direla ulertzen baitugu. Eta bestetik, herrian parte aktibo izatera animatu nahi zaitugu, eta horretarako edukiak ere jaso dira.

Bi hizkuntzatan jaso duzu gida, zuretzat gertukoen egiten zaizun horretan, eta gurean, euskaraz.

Gidan jasotzen denaz gain informazio gehiago behar baduzu, Harrera Bulego Integralera jo dezakezu, eta bertan informazio osagarria jaso ahal izango duzu.

إذا وصلكم هذا الدليل فعلى الأرجح أنكم جئتم للعيش في هِرْنَني خلال الشهور الماضية. في بادئ الأمر نود أن نرحب بكم، «أُنْغِ إيتورِّ هِرْنَنيرا»!

لقدت قبلت هِرْنَني أن تكون بلدية للاستقبال. فلطالما تنقلنا عبر التاريخ، تماما كما هو الحال اليوم، سواء في العالم كله أو في حدود أرضنا، في إقليم الباسك أو في هِرْنَني، فنحن نؤمن بحق التنقل للناس أجمعين.

نريدكم أن تحسوا بانتمائكم إلى هذه البلدة كما يحس بذلك سكانها، أن تستمتعوا بها وأن نقوم كلكن وكلنا بالاستمرار في جعل هِرْنَني بلدة ذات قابلية للعيش أكثر فأكثر.

يمكنكم أن تجدوا في هذا الدليل العديد من الموارد والمعلومات المحلية. من جهة، ستجدون معلومات حول الاحتياجات الأساسية وذلك لأنها تشكل الحقوق الأساسية لكل شخص. ومن جهة أخرى، فإننا نوفر محتويات يمكنها أن تحفزكم للمشاركة الفعالة في الحياة المحلية.

لقد حصلتم على هذا الدليل بلغتين، اللغة الأقرب لكم وبلغتنا وهي الإوسكيرا.

إذا احتجتم إلى معلومات إضافية، يمكنكم التوجه إلى مصلحة الاستقبال الشاملة (أَرِّرا بوليغو إنتغرالا)، حيث يمكنكم الحصول عليها.

Gipuzkoako lurraldearen ipar-ekialdean kokatutako herria gara eta jatorri ezberdinetako 20.565 biztanlek osatzen dugu (2022ko datuen arabera). Donostiatik, hiriburutik, oso hurbil kokatuta gaude, eta gure inguruneko herri-hiriekin komunikabide eta garraio publiko zerbitzu zabala dugu.

Horrez gain, Hernaniren lurralde eremua oso zabala da, eta hiriguneaz gain, Urumea ibaia eta Aiako Parkea ingurune naturalaz goza dezakegu Hernanitik atera gabe (berdeguneak, mendi ibilbideak, kirol jarduerak naturan...).

XIX eta XX. mendeetan landa eta baserri herria izatetik hiri industrial izatera igaro zen, eta horrek migrazio asko jaso duen herri bilakatu du. Gaur egun zerbitzuen sektorea da nagusi Hernanin, baina landa giroaren zein industriaren presentzia nabarmena da herrian.

Gauzak honela, ondare historiko oparoa jasotzen dute bai natur eremuek (historiaurreko aztarnak, esaterako) eta baita gure kale eta hiriguneak ere (gure historia garaikidea, kultur ondarea, etab.).

Herriko jai nagusiak San Joanak izaten dira, ekainaren 23tik 27ra, udako solstizioan, eta jaietan egiten den ospakizunen artean Azeri Dantza nabarmentzen da (inauterietan ere egiten da). Urtean zehar ere ekintza kultural oso anitzak antolatu eta haiez gozatzeko aukera izaten dugu.



تقع بلدتنا في الشمال الشرقي لقطاع غيبوثكوا وتسكنه ٢٠,٥٦٥ نسمة، مختلفة الأصول (حسب بيانات ٢٠٢٢). كون بلدتنا قريبة من العاصمة دوناستيا-سان صباستيان، فنحن نتوفر -بالإضافة إلى البلدات المجاورة لنا- على خدمات متنوعة للاتصال والنقل العمومي.

مساحة بلدة هِرْنَني شاسعة للغاية، بحيث يمكننا الاستمتاع بالمجال الطبيعي لنهر أوروميًا وبمنتزه أَيِيًا دون الحاجة إلى مغادرة هِرْنَني (مجالات خضراء، ممرات جبلية، أنشطة رياضية في الطبيعة...).

فمن مجال قروي خلال القرن ١٩ و٢٠ تنتشر فيه الضيعات، إلى مدينة صناعية جلبت حركة هجرة مهمة. رغم كل ذلك فإن قطاع الخدمات هو القطاع الأساسي في الوقت الراهن، إلا أن المجال القروي والصناعة يبرزان أيضا بشكل ملحوظ.

بهذا الشكل يمكننا الاستمتاع بتراث تاريخي غني، سواء في الفضاءات الطبيعية (مواقع ما قبل التاريخ مثلا)، أو في أزقة ومراكز حضرية (تاريخنا المعاصر، التراث الثقافي...).

نجد أيضا احتفالات «القديس الراعي» (صان خوان) من يوم ٢٣ إلى ٢٧ من يونيو، خلال الانقلاب الصيفي. كما تبرز خلال هذه الاحتفالات رقصة «أَسِري دانْسا» (التي تقام أيضا في المهرجانات). ونقوم أيضا بتنظيم أنشطة ثقافية جد متنوعة والاستمتاع بها على مدار السنة.



Euskara

Hernaniko Udala, Euskara Zerbitzua
بلدية هِرْنَني: خدمة الإوسكيرا.
Gudarien plaza, 1. solairua Ezk.
943 337029
euskara@hernani.eus

Udal euskaltegia
إوسكالتيغي البلدي
Karobieta kalea, 63
943 331895
euskaltegi@hernani.eus

AEK Euskaltegia
Larramendi kalea, 11
943 557801
hernani@aek.eus

Euskara da Hernaniko berezko hizkuntza eta udalerriko bi hizkuntza ofizialetako bat, gaztelaniarekin batera. Bi hizkuntza horiez gain badira beste hainbat hizkuntza herrian, jatorri anitzeko herritarrak bizi direlako Hernanin.

Herritarren % 60k badaki euskaraz hitz egiten, eta badira beste % 20 ulertu egiten dutenak nahiz eta hitz egiteko gai izan ez. Hala ere, hizkuntza gutxiagotua da euskara gure herrian, eta gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa da.

Baina bai Udala eta baita herritarrak ere lanean ari gara euskarak izan dezan nagusitasuna Hernanin, hizkuntza aniztasuna balioan jarriz, euskaraz bizi nahi dugulako gure herrian.

الإوْسْكيرا هي اللغة الأصلية لِهِرْنَني وواحدة من اللغتين الرسميتين للبلدة، إلى جانب الإسبانية. بالإضافة إلى ذلك، تنتشر العديد من اللغات في البلدة، لأن في هِرْنَني يتعايش أشخاص من أصول جد متنوعة.

يتحدث 60% من الساكنة بالإوسكيرا، بينما يفهمها 20% رغم عدم قدرتهم على الحديث بها. غير أن الإوسكيرا لغة الأقلية في بلدتنا، وعكسها نجد الإسبانية المنتشرة بشكل أوسع.

لذلك فإن كلا من البلدية وساكنات وسكان هِرْنَني نعمل على تثمين التنوع اللغوي، لكن في نفس الوقت نعمل على أن تسود الإوسكيرا كلغة في هِرْنَني، لأننا نرغب في أن نعيش في بلدتنا على النمط الإوسكيري.

لهذا، فإن من المهم لبلدية وسكان هِرْنَني على حد سواء أن يقوم السكان الجدد الوافدين على المدينة بالاقتراب من الإوْسْكيرا ومن تعلمها وأن يطلبوا من الأشخاص الذين يتكلمون لغتنا من أن يستعملوها.

Horregatik, garrantzitsua da Hernaniko Udalarentzat, herrira zatozten bizilagun berriak euskarara hurbiltzea, euskara ikastea eta bertako euskaldunoi euskara erabiltzeko eskatzea.

Baliabide asko daude Hernanin euskara ikasteko eta praktikatzeko, bai haur eta gazteentzat eta baita helduentzat ere.

وفي هذا السياق، تتوفر هِرْنَني على مجموعة من الموارد من أجل تعلم وتطبيق الإوسكيرا، سواء بالنسبة لأطفال والشباب أو للكبار.





Hernaniko Udala,
beheko solairua,
Gudarien plaza

Harrera Bulego Integrala

مصلحة الاستقبال الشاملة

Herrira etorri berri diren pertsona guztiei eskaintzen zaien zerbitzua da. Gida honen informazioa osatzeko edota zehaztasun gehiago jasotzeko, baliabide eta xehetasun guztiak eskaintzen dira modu pertsonalizatuan.

Zerbitzua doakoa da, ez da erroldatua egon behar. Goizeko zein arratsaldeko ordutegia du eta Herritarren Harrera Zerbitzuan hitzordua eskatuz iritsiko zara bertara.

توفِّر هذه الخدمة لكل الوافدين الجدد على البلدة. ومن أجل تكميل المعلومات المضمنة بهذا الدليل و/أو التوسع في التفاصيل، يتم توفير جميع الموارد والتفاصيل بشكل مخصص.

هذه الخدمة موفرة مجانيا ودون الحاجة إلى التسجيل في سجل الإحصاء السكني، كما أنها متاحة في ساعات الصبح وبعد الظهر.

يجب طلب موعد مسبق في خدمة رعاية المواطنين (HHZ).

Udala

البلدية

www.hernani.eus

Gudarien plaza, 1

943 337 000

Astelehenetik ostiralera 8:00-14:00. Astearte eta ostegunetan 8:00-19:00

أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 08:00 إلى 14:00. الثلاثاء والخميس: من 08:00 إلى 19:00

hhz@hernani.eus

@hernanikoudala

Hernaniko Udala

@hernanikoudala

Hernaniko Udaletxea herriko plaza nagusian dago, Gudarien Plazan. Herritarrek hautatutako udal ordezkariek eta udal langileen gehiengoak bertan burutzen du bere jarduna.

تقع بلدية هِرْنَني في بلاثا مايور، المسماة غوداريين بلاثا. يقوم كل من الممثلات والممثلون المختارون من قبل المواطنين وأغلبية العاملين في البلدية من أداء عملهم في هذه المؤسسة.

HHZ (Herritarren Harrera Zerbitzua)

Eraikinaren behe solairuan HHZ aurkituko duzu. Udaleko leihatila bakar gisara funtzionatzen du, herritarrek udalaren inguruan bai eta herriaren inguruan ere gehien eskatzen dituzten informazio, tramite eta udal zerbitzuak eskainiz.

HHZ (خدمة رعاية المواطنين)

تقع هذه المصلحة في الطابق السفلي من مبنى البلدية. تعمل هذه المصلحة بنظام النافذة الموحدة، موفرة المعلومات، الإجراءات والخدمات المتعلقة بالبلدية الأكثر طلبا من المواطنين والخاصة سواء بمؤسسة البلدية أو ما يتعلق بالأمور المحلية.

Zerbitzu nagusiak:

- Informazioa.
- Udalari zuzendutako agirien sarrera erregistroa (baita Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari zuzendutako agiriak ere).
- Tramiteak egitea momentuan bertan.
- Agiriak konpultsatzea.
- Inprimakiak eta agiriak eskatzea.
- Zerga, tasa, prezio publiko eta isunen ordainketak egitea.
- Galdutako gauzak jasotzea.
- Abisuak, kexak, iradokizunak eta erreklamazioak jasotzea.

الخدمات الأساسية:

- المعلومات.
- تسجيل الوثائق الواردة على البلدية (بالإضافة إلى المجلس الإقليمي غيبوثكوا ولحكومة إقليم الباسك).
- إنجاز الإجراءات على الفور.
- التصديق على الوثائق.
- طلب المطبوعات والوثائق.
- أداء الضرائب، الرسومات، رسوم الخدمات والغرامات.
- استرجاع الأغراض الضائعة.
- استلام الإشعارات، الشكايات، المقترحات والشكاوى.

ERROLDATZEA
السجل البلدي للسكان

Pertsona oro bizi den udalerrian izena emanda egon behar da. Erregistro administratibo bat da, eta inskribatua egotearekin, eskubide publiko batzuk aitortzen zaizkizu, besteak beste:

يجب على جميع الأشخاص أن يكونوا مسجلين في البلدية حيث يسكنون. يتعلق الأمر بتسجيل إداري، يتم الاعتراف من خلاله بمجموعة من الحقوق، من بينها:

- Udal zerbitzuetan izena eman eta zerbitzu horiek erabiltzeko aukera, kultur etxeko ikastaroetan eta kiroldegiko ikastaroetan, adibidez.
- إمكانية التسجيل والولوج إلى الخدمات التابعة للبلدية، مثل دروس دار الثقافة والمجمع الرياضي.
- Osasun publikorako txartela.
- البطاقة الصحية.
- Diru-laguntza eta bonifikazioetarako aukera.
- إمكانية الحصول على الإعانات ومكافآت.
- Seme-alabak izatearen kasuan, eskolaratzea.
- التمدرس للأبناء والبنات.

Aurrez aurre egin behar da HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko behe solairuan). Informazio guztia bertan jasoko duzu eta normalean, egunean bertan egiten da.

يتم القيام بهذا الإجراء بشكل حضوري في مصلحة رعاية المواطنين (الطابق السفلي للبلدية). عادة، يتم هذا الإجراء على الفور، كما يمكنكم الحصول على المعلومات في عين المكان.

erabaki.hernani.eus

partehartzea@hernani.eus

HERRI PARTAIDETZA

مشاركة المواطنين

Udal honetan herritarrek politika publikoetan iritzia emanez edota erabakiak hartuz parte hartzeko hainbat aukera eskaintzen dira. Kontseilu eta foro ezberdinetan parte hartzeko aukera irekitzen da, besteak beste:

- Berdintasun Kontseilua
- Adinekoen Kontseilua
- Kooperazio Taldea
- Gaztetu Hernani, Gazte Kontseilua

توفّر مجموعة من الفرص لمشاركة المواطنين في السياسات العمومية و/أو اتخاذ القرارات. تتاح فرصة المشاركة في مجموعة من المجالس والمنتديات، مثل:

- مجلس المساواة.
- مجلس المتقدمين في السن.
- مجموعة التعاون.
- «غاسْتيتو هِرْنَني»، مجلس الشباب.

Aipatutakoez gain, beste hainbat foro eta prozesu ere bultzatzen ditu, eta horien inguruko informazio guztia aurkituko duzu web orrian.

بالإضافة إلى المنتديات وكل ما تم ذكره، يمكنكم إيجاد المعلومات حول مبادرات أخرى من نفس النوع في الموقع الإلكتروني.



HERNANI BURUJABE

burujabe.hernani.eus

Azken urteetan Hernani Burujabe izeneko proiektua sustatu da. Tokiko garapen burujabea bultzatu nahi da, herritarron eta komunitatearen ongizatea sustatu, eta horretarako erakunde publikoak (udala), ehun ekonomikoak (enpresa txiki eta ertainak, kooperatibak eta enpresa publikoak) eta herritarrek elkarrekin bultzatutako proiektuak sortzen gabiltza, besteak beste, elikadura, energia, zaintza, telekomunikazioa edota merkataritzan. Proiektu honetan ere herritarrek paper oso garrantzitsua dute, eta parte hartzeko, antolatzeko zein jarduera ezberdinak bultzatzeko aukera anitzak zabaltzen ditu.

كما أنه وفي السنوات الأخيرة، تم بدأ مشروع أطلق عليه «هِرْنَني بورويابي». يتعلق الأمر بمبادرة تسعى إلى تشجيع التطور المحلي السيادي، رفاهية المواطنين والمجتمع، من خلال مشاريع تشرف عليها بشكل جماعي مجموعة من المؤسسات العمومية (البلدية)، من النسيج الاقتصادي (شركات صغيرة ومتوسطة، تعاونيات وشركات عمومية)، ومن قبل المواطنين في مجالات مثل التغذية، الطاقة، الرعاية، الاتصالات السلكية واللاسلكية أو التجارة. يلعب المواطنون دورا مهما في هذا المشروع أيضا، بحيث يتيح مجموعة من الفرص للمشاركة، تنظيم وتعزيز مختلف الأنشطة.

hernani
burujabe

Osasuna

الصحة

Hernaniko Osasun Zentroa
المركز الصحي لِهرْنَني

osakidetza.euskadi.eus

Aristizabal kalea, 1

943 00 66 66

Arreta ordutegia:
8:00-20:00

Larrialdiak
هاتف المستعجلات:
112

Erroldan altan ematearekin batera, pertsona orok Osakidetzaren osasun sistema publikorako aukera dugu. Osasun sistema publikoa Hernaniko Osasun Zentroaren bitartez eskaintzen da, eta sistema publikoa den neurrian, mediku laguntza doakoa da. Hala ere, osasun zentrora hurbilduz gero, dituzun eskubideen informazioa jasoko duzu.

Medikuarekin egoteko hitzordua hartu beharra dago larrialdia ez den kasuetan, bai bertako harreran, interneten edo telefono bidez.

Osasun txartela ateratzeko osasun zentrora joan beharra dago.

عندما نتسجل في السجل البلدي للسكان، يكون لجميع الأشخاص الحق في الولوج إلى خدمات «أوساكيديثزا»، نظام الصحة العمومي المتاح من خلال المركز الصحي لِهرْنَني، حيث تقدَّم الرعاية الصحية بشكل مجاني. يمكنكم الحصول على معلومات تخص حقوقكم من خلال الذهاب إلى المركز الصحي، حيث سيقومون بإعطائكم كافة المعلومات التي تحتاجونها.

باستثناء الحالات المستعجلة، فمن الضروري طلب موعد سواء في خدمة الاستقبال، عبر الأنترنيت أو من خلال اتصال هاتفي.

من أجل الحصول على البطاقة الصحية يجب التوجه إلى المركز الصحي.

Kultura

الثقافة

Herri honen DNAn dago aktibo izatea, eta horren adibide dugu Hernanin antolatzen diren kultur jarduera anitza eta elkartegintza zabala.

Erreferentziazko gune nagusia Biteri Kultur Etxea da, bertan ikastaroak, erakusketak, musika, antzerki, dantza, zinema eta kultur arloko beste hainbat jarduera antolatzen dira.

Kultur jarduera eta ekintzak oso anitzak eta ugariak dira. Ezagutzera eta bertan parte hartzera animatu nahi zaitugu. Hilabete hasieran Hernaniko Udalak egitaraua publiko egiten du esku-orri batean, herriko eragile zein udalak antolatutako ekintza guztiekin. Horrez gain, Biteri Kultur Etxean haur zein helduentzako ikastaro eskaintza oso zabala antolatzen da.

Kultura arloko informazioa kontsultatzeko:

نحب الأنشطة باختلافها، ويجري ذلك كالدم في عروقنا، وكمثال على ذلك نجد التنوع الكبير في الأنشطة الثقافية والجمعوية التي تنظم في هِرْنَني.

يعتبر «بِتيري كولتور إِشِيا» (دار الثقافة بِتيري) المركز الثقافي المرجعي، حيث يمكنكم الاستمتاع بدروس، عروض، موسيقى، مسرح، رقص، سينما وعروض ثقافية أخرى.

الأنشطة الثقافية متنوعة ومتعددة. نشجعكم على التعرف عليها والمشاركة فيها. تقوم بلدية هِرْنَني في أوائل الشهر بالإعلان عن البرنامج من خلال منشور متضمن للأنشطة المنظمة، سواء من قبل البلدية أو من قبل جهات محلية أخرى. بالإضافة إلى ذلك، في دار الثقافة بِتيري يتم تقديم عروض متعددة للدروس موجهة للقاصرين وللكبار.

مصادر المعلومات الثقافية:



Biteri Kultur Etxea

kultura.hernani.eus

Nafar kalea, 18

943 55 29 62

Astelehenetik ostiralera
9:00–22:00
Larunbatetan 9:00–13:00
أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 09:00 إلى 22:00، أيام السبت من 09:00 إلى 13:00.

@hernanikultura

@hernanikultura

- Hernaniko elkarteek eta udalak hilabeterako antolatutako programazio orria etxeetako postontzietan banatzen dute.
- **Kultura.hernani.eus** atarian Hernaniko Udalaren kultur programazioa ikusi ahal izango duzu.
- Biteri kultur etxeko ikastaroen eskaintza.

- ورقة البرنامج الشهري (البلدي وجمعيات هِرْنَني) يتم تركها في صناديق البريد بالمنازل.
- يمكنكم الاطلاع على العرض الخاص بالبلدية في الموقع **kultura.hernani.eus**
- للاطلاع على عرض الدروس يمكنكم التوجه إلى (دار الثقافة بِتيري) Biteri Kultur Etxea

LIBURUTEGIA
المكتبة

Astelehenetik ostiralera
9:00–14:00 / 16:00–22:00
Larunbatetan 10:00–13:00
من الإثنين إلى الجمعة: 09:00-14:00 / 16:00-20:00
أيام السبت: من 10:00 إلى 13:00

liburutegia.hernani.eus

Nafar kalea, 18

943 55 29 66

liburutegi@hernani.eus

688 635 462

@libhernani

@libhernani

Biteri Kultur Etxean kokatua dagoen udal zerbitzua da. Erabat doakoak diren baliabide eta aukera asko eskaintzen ditu, besteak beste:

- Liburutegiko sarreran, informazioa eta harrera egingo dizute, behar duzun informazio guztia eskainiz.

يتعلق الأمر بخدمة تابعة للبلدية، تجدونها في Biteri Kultur Etxea (دار الثقافة بِتيري). توفر هذه الخدمة عددا متنوعا من الموارد والإمكانيات المجانية بشكل كامل، مثل:

- الاستقبال والمعلومات حول كل ما تحتاجونه في مدخل المكتبة.

- Sarreran, prentsa eta aldizkariak irakurtzeko gunea du, azken nobedadeen atala, fonoteka eta bidaia gidak.

- Helduen sailean katalogo zabala dute. Mota guztietako liburu, komiki eta DVDak aurkituko dituzu (bertan, eta bestela, beste liburutegi batetik ekarriko dizute).

- Haurren saila ere badu: txikienentzako txokoa, komikiak, bideoteka eta erreferentzia liburuak (fantasia, beldurra, umorea, egunerokoa, beste hizkuntzetan…).

- 16 urtetik gorako helduentzat kontsultarako dokumentazioa du eta baita ikasgelak ere (liburutegian bertan eta kultur etxearen behe solairuan).

- Interneterako ordenagailuak eta Wifi zerbitzua eskaintzen dira.


- تتوفر المكتبة على فضاء لقراءة الصحف والمجلات، مرفق بآخر المستجدات، الوسائط السمعية وكتيِّبات السفر.

- يتوفر قسم الكبار على قائمة متنوعة يمكنكم أن تجدوا فيها جميع أنواع الكتب، القصص المصورة وأقراص DVD (وإلا فإنهم يوفرونها لكم من مكتبات أخرى).

- تتوفر أيضا على فرع للأطفال: زاوية للصغيرات والصغار، قصص مصورة، مكتبة مرئية وكتب مرجعية (الخيال، الرعب، فكاهة، المسائل اليومية واللغات على سبيل المثال لا الحصر).

- تحتوي أيضا على وثائق للاطلاع للبالغة أعمارهم أكثر من 16 سنة وأيضا على صالات (في نفس المكتبة وفي الطابق السفلي لدار الثقافة).

- توفر أيضا حواسيب من أجل الولوج إلى الأنترنيت وخدمة الوايفاي.


Hernani
ANTZIOLA AUZOA
Antziola auzoa
Iturmendi
Aritzmendi
127 m
SORGINTXULO AUZOA
Latsunbe Auzoa
SAGASTIALDEBERRI AUZOA
SAGASTIALDE AUZOA
Sagastialde Auzoa
Txillida Pasealekua
Ave Maria Parkea
Perkaiztegi kalea
Florida auzoa
MARIELUTS AUZOA
Latxunbe Auzoa
Argarain Kalea
Antziola kalea
Latxunbeberri kalea
Urbieta kalea
KAROBIETA AUZOA
Karobieta
Iturregi kalea
Elkano kalea
Zinkoenea
Txirrita kalea
Aristizabal kalea
Izpizua kalea
KARABEL
Oleta kalea
Ispizua kalea
Larramendi
Hugo kalea
Lizeaga Kalea
Elizatxo
PORTU AUZOA
Tellerigain kalea
Antsorena anaiak
ELIZATXO AUZOA
Urumea



1 Udaletxea
البلدية

2 Herritarren Harrera Zerbitzua
خدمة رعاية المواطنين (HHZ)

3 Udal euskaltegia
إوسكالتيغي البلدي (مراكز تعليم الإوسكيرا للكبار)

4 AEK euskaltegia

5 Osasun Etxea
المركز الصحي لِهِرْنَني

6 Biteri Kultur etxea
(دار الثقافة بِتيري)

7 Liburutegia
المكتبة

8 Zerbitzu sozialak
الخدمات الاجتماعية

9 Enplegua. Iturola
الشغل

10 Kiroldegia
المجمع الرياضي

11 Kulturarteko Plaza Feminista

12 AHMER-SOS Arrazakeria
الجمعية متعددة الثقافات لِهِرْنَني للإغاثة من العنصرية

13 Hezkuntza eta gazteria
التعليم والشباب

14 Udaltzaingoa
شرطة البلدية

15 Posta
خدمه بريديه



Sandiusterri kalea, 1

943 55 78 54

zerbitzusozialak@hernani.eus

Zerbitzu sozialak

الخدمات الاجتماعية

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak herri osoari zuzendua dagoen udal zerbitzua da. Helburu nagusia herritar guztien gizarteratzea da, autonomia eta gizarte ongizatea bultzatzea eta, bereziki, herritarren behar nahiz bizitza proiektuaren garapen autonomorako zailtasunak dituzten pertsona, familia eta taldeei zuzendutako zerbitzua eskaintzea. Gure herrian egoera ahulean dauden pertsonei laguntza berezia eskaintzen zaie.

إن الخدمات الاجتماعية التي توفرها بلدية هِرْنَني هي خدمات تابعة للبلدية الرئيسي لجميع المواطنين. أما الهدف الرئيس من كل ما سبق فهو تشجيع الاندماج الاجتماعي، الاستقلالية والرفاهية الاجتماعية للمواطنين أجمع، وبشكل أخص توفير خدمة موجهة للأشخاص، الأسر والجماعات الذين يعانون من صعوبات في تطوير استقلاليتهم المتعلقة بمخطط حياتهم بغرض تلبية احتياجاتهم. توجه رعاية خاصة للأشخاص في وضعية هشة والساكنين بهِرْنَني.

Baliabide publikoak eta laguntzak eskaintzen dira, gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bultzatzeko, adibidez:

توفر لهم موارد ومساعدات عمومية من أجل تعزيز الاندماج الاجتماعي، الاستقلالية والرفاهية، وكمثال على ذلك نجد:

- Baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden pertsona eta egoerei bideratutako baliabideak.
- Mendekotasun fisikoa, psikikoa, sentsoriala eta burueritasuna duten pertsonei tramitazioak, laguntza bereziak, mendekotasun azterketak, eta abar bideratzeko laguntza zuzena eskaintzen da.
- Babesa behar duten edo babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoentzako baliabideak.
- Banaketa prozesuak eta tratu txarrak direla medio kaltetuak izan diren pertsonentzako aholkularitza.
- Indarkeria matxista kasuetarako laguntza eta orientazioa.
- Elkarbizitza nahiz familia antolaketa dela kausa, arazoak dituzten familia eta pertsonei zuzendutako aholkularitza.

- الموارد الموجهة للأشخاص في وضعية الإقصاء أو في خطر مواجهته.
- يوفِّر دعم مباشر للأشخاص ذوي الاعتماد الجسدي، النفسي، الحسي والذين يعانون من امراض عقلية، من أجل القيام بإجراءات، طلب المساعدات الخاصة، دراسة الارتهان، إلخ.
- توجد أيضا موارد خاصة بالقصَّر المفتقرين للحماية أو المحتاجين لها.
- تقديم الاستشارة للأشخاص الذين أثرت عليهم عمليات الانفصال، سوء المعاملة.
- تقديم الدعم والتوجيه في حال العنف الذكوري.
- تقديم الاستشارة للأسر والأشخاص الذين يعانون من مشاكل التعايش والتنظيم الأسري.



iturola.eus
Florida auzoa 28
943 25 63 47
info@iturola.eus
@IturolaHernani
@IturolaHernani
@IturolaHernani
@IturolaHernani

Enplegua

الشغل

Hernanin enpleguari eta lan munduratzeari lotutako hainbat zerbitzu eta baliabide aurkituko dituzu, besteak beste:

إن الخدمات الاجتماعية التي توفرها بلدية هِرْنَني هي خدمات تابعة للبلدية الئيسي لجميع المواطنين. أما الهدف الرئيس من كل ما سبق:

ITUROLA "إيتُرولَ"

Berrikuntza eta eraldaketa sozialean oinarritzen diren esperientzia ekonomikoen bilgunea da, eta proiektu sozioekonomikoak garatzeko baliabideak eskaintzen dira bertan.

هو عبارة عن فضاء متعلق بالتجارب الاقتصادية المرتكزة على الابتكار والتحول الاجتماعي، حيث توفر موارد من أجل تطوير المشاريع الاجتماعية الاقتصادية.

Lanerako espazio partekatua da, sektore ezberdinetako profesionalak elkartu eta giro kolaboratzailean beren eguneroko jarduna eta proiektuak garatzeko gunea.

إنه فضاء مشترك للعمل، حيث يجتمع مهنيون من مختلف القطاعات للقيام بأنشطتهم اليومية ومشاريعهم في مجال تعاوني.

Ekintzaileek, freelance-ek, autonomoek, GKEek, elkarteek eta finkapen fasean dauden enpresek parte har dezakete bertan.

يمكن أن يشارك في هذا الفضاء أشخاص مستقلون، رواد الأعمال، أصحاب الأعمال الحرة، المنظمات غير الحكومية، جمعيات وشركات في طور البناء.

ENPLEGU ORIENTAZIOA

التوجيه المهني

Florida auzoa 28

688 63 52 82

Langabezian bazaude, baita enplegua baduzu edota aldatu nahi baduzu ere, orientazioa eskainiko zaizu zerbitzu honetan. Enplegua bilatzeko hainbat teknikatan trebatzen da: curriculum vitae-aren hainbat formatu landu, harremanen kudeaketa, hautaketa-prozesuetarako tresnak eta lana bilatzeko sare sozialen kudeaketa. Lanbide edo enplegu bat egoki aukeratzen lagunduko zaizu, zure interes pertsonalak jendartearen eta lan-merkatuaren beharrekin integratuz.

يمكنكم الحصول على التوجيه من خلال هذه الخدمة إذا كنتم عاطلين عن العمل أو كنتم تعملون، ولكن ترغبون في التغيير. يتم توفير تكوين في مختلف تقنيات البحث عن العمل: إعداد العديد من نماذج السير الذاتية، إدارة العلاقات، آليات خاصة بعمليات الانتقاء وإدارة شبكات التواصل الاجتماعي المتعلقة بالبحث عن العمل. ستتم مساعدتكم لاختيار حرفة مناسبة أو عمل معين، من خلال إدماج مصالحكم الشخصية باحتياجات المجتمع وبسوق الشغل.

Herriko zerbitzu eta baliabideez gain, hona informazio osagarri gehiago:

معلومات حول الخدمات والموارد خارج هِرْنَني:

GIZARTE SEGURANTZA التوجيه المهني

Pio XII.aren Plaza 2, behea.
Donostia

943 47 25 36

LANBIDE Lanbide ("لانْبِيدي")- مصلحة العمل الباسكية

Donostia Etorbidea, 5
Lasarte-Oria

945 16 06 00

Jarduera fisikoa eta kirola

الأنشطة البدنية والرياضة

Kiroldegia المجمع الرياضي

kirola.hernani.eus

Elkano kalea, 27

943 55 21 85

Astelehenetik ostiralera 6:45–22:30
Larunbatetan 9:00–20:30
Igande eta jai egunetan 8:30–13:30

أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 06:45 إلى 22:30، أيام السبت من 09:00 إلى 20:30. الأحد والأعياد: من 8:30 إلى 13:30.

@HKirola

Hernaniko Udalak, Jarduera Fisiko eta Kirol Sailaren bidez, jendarte aktiboagoa eta osasuntsuagoa bultzatzeko helburua du. Biztanleriarengan jarduera fisikoa egiteko ohitura sortzea da helburua, eta horretarako bai udalak eta baita herrian ditugun kirol elkarte eta jarduera ugariek, aukera oso zabala eskaintzen dute. Horrez gain, kirol jarduerak bultzatzen dira gizarte talde espezifikoetan, hala nola, emakumeen kirola, haur eta gaztetxoena, adineko pertsonena, etab.

Udaletxeko kirol sailean informazio ugari jaso ahal izango duzu: Eskola Kirola, ttapa-ttapa, Kiroldegiaren funtzionamendua, kiroldegiko ikastaroak, herriko kirol instalazioak, igerilekua, udako igerileku irekiak, kirol elkarteen mapa eta antolatzen dituzten jarduerak, etab.

تهدف بلدية هِرْنَني من خلال قسم الأنشطة البدنية والرياضة إلى تشجيع المجتمع على أن يكون أكثر نشاطا وصحة. يهدف ذلك إلى تعويد الساكنة على النشاط البدني. ولتحقيق هذه الهدف توفر سواء البلدية أو مجموعة الجمعيات الرياضية الكائنة في البلدة العديد من الفرص في هذا السياق. وبالإضافة إلى ذلك، يتم تعزيز أنشطة رياضية خاصة، مثل الرياضة النسائية، والفئات العمرية الأخرى: الأطفال والشباب والمتقدمين في السن...

يمكنكم الحصول على هذه المعلومات في قسم الرياضات الخاص بالبلدية: الرياضة المدرسية، «التَّبَ التَّبَ » (المشي)، كيفية عمل المجمع الرياضي والدروس المتوفرة فيه، المرافق الرياضية المحلية، المسبح المغطى، المسابح الصيفية المفتوحة، خريطة النوادي الرياضية والأنشطة المنظمة...

Kulturarteko Plaza Feminista

الساحة النسائية المتعددة الثقافات

Feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Emakumeen ahalduntze prozesuak sustatzeaz gain, kultura anitzeko pertsonen topalekua ere bada. Feminismoan aritzen diren edota arrazakeriaren aurka lanean ari diren herri-eragileentzako tokia da; horien arteko sarea eta aliantzak egiteko.

Kulturarteko Plaza Feministan honako **zerbitzu eta baliabide** hauek topa ditzakezu:

- Emakumeentzako Jabetze Eskola.
- Sexu eta bikote aholkularitza.
- Emakumeenganako diskriminazio eta indarkeria egoeren gaineko aholkularitza juridikoa.

هو عبارة عن فضاء مناصر للمرأة ومناهض للعنصرية. فبالإضافة إلى تشجيع تمكين النساء، فإنه يعتبر نقطة لقاء متعددة الثقافات. كما أنه فضاء للفاعلين الشعبيين الذين يعملون في المجال النسائي ومكافحة العنصرية؛ ومكان حيث يمكننا نسجع علاقات وشراكات.

يمكنكم الحصول في الساحة النسائية المتعددة الثقافات على الخدمات والموارد التالية:

- مدرسة تمكين النساء.
- الإرشاد الجنسي والعلاقاتي.
- الاستشارات القانونية في حالات التمييز والعنف ضد النساء.





Florida auzoa, 28

943 33 70 17

Astelehenetik ostiralera 9:30-21:00 Larunbatetan: 9:30-13:00 eta hileko 1. eta 3. larunbatetan baita arratsaldetan ere (16:00-20:00)

من الإثنين إلى الجمعة: من 09:30 إلى 21:00
أيام السبت: من 09:30 إلى 13:00. السبت الأول والثالث، خلال المساء أيضا (16:00-20:00).

kulturartekoplazafeminista@hernani.eus

@HernaniPlazafem
@HernaniPlazafem
@HernaniPlazafem

- Indarkeria matxista jasan duten emakumeen elkar zaintzarako taldea.
- Dokumentazio gunea: feminismoa, kulturartekotasuna eta lankidetza gaien inguruan.
- Bulegoak: Udaleko Berdintasun, Kulturarte-kotasun eta Lankidetza arloak eta AMHER SOS Arrazakeria elkartea.
- Hainbat sentsibilizazio ekimen, hala nola, erakusketak, hitzaldiak, mahai inguruak...

Bertan antolatutako ekimenak hileroko egitarauan jaso eta zabaltzen ditu Udalak.

- مجموعة للعناية المتبادلة بين النساء ضحايا العنف الذكوري.
- مركز الموارد الموثقة: الحركة النسائية، تعدد الثقافات والتعاون.
- المصالح: قسم المساواة، تعدد اللغات والتعاون التابع للبلدية وجمعية AMHER SOS Racismo (الجمعية متعددة الثقافات لِهِرْنَني للإغاثة من العنصرية).
- أعمال التحسيسية: عروض، مؤتمرات، ندوات للنقاش، المنتديات السينمائية ...

تقوم البلدية بالإعلان عن البرنامج من خلال منشور شهري.

AMHER SOS – ARRAZAKERIA

الجمعية متعددة الثقافات لِهِرْنَني للإغاثة من العنصرية

Florida auzoa, 28

667 710 928 / 650 294 390 / 671 116 414

amhersosarrazakeria@gmail.com

@amhersosarrazakeria
@AmherSos
@gaztebizilagunak

Hernaniko elkarte multikulturala, irabazi asmorik gabeko elkartea da, 2004an sortua. Pertsona migratuen inklusioa landu eta berdintasuna, elkarbizitza eta aniztasunarekiko errespetua sustatzeko lanean dihardute. Harrera, aholkularitza, atzerritarren arloko laguntza eta sentsibilizazio jarduerak egiten dituzte.

جمعية متعددة الثقافات، لا ربحية، أنشئت سنة 2004، يقع مقرها بهِرْنَني. تعمل هذه الجمعية على إدماج الأشخاص المهاجرين وتعزيز المساواة، التعايش واحترام التنوع. تقوم الجمعية بإنجاز أنشطة للاستقبال، الاستشارة، الرعاية والتحسيس في ما يتعلق بشؤون مصلحة الهجرة.

Hezkuntza

التعليم

Hernaniko Udala.
Hezkuntza Saila
بلدية هِرْنَني: قسم التعليم

Aristizabal kalea, 7

943 33 70 41

hezkuntza@hernani.eus

Hernanin aukera zabala dago haur eta nerabeek beren ikasketak herrian bertan egiteko. 0 urtetik hasi eta 16 urtera bitarteko Derrigorrezko Hezkuntza zikloa oso-osorik burutu daiteke Hernaniko ikastetxeetan, baita Batxilergoa eta Lanbide Heziketako hainbat ziklo ere.

Kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen da Hernaniko ikastetxeetan: hezkidetzan oinarritutako heziketa, ingurumena zaintzeaz arduratzen dena; guraso, irakasle eta ikasleen arteko elkarlana bultzatzen duena; aniztasunari arreta jartzen diona, komunitate osoaren inklusioa helburu duena eta doakoa. Finean, herrian txertatutako eskola, herriko bizimoduarekin bat egiten duena.

يتوفر في هِرْنَني عدد متنوع من الفرص حتى يتمكن الأطفال والمراهقون من متابعة دراستهم. يمكن متابعة الدراسة في مرحلة تعليم الأطفال (من 0 إلى 6 سنوات) والمرحلة الإجبارية من (6 إلى 16 سنة) في المراكز التربوية بهِرْنَني. ونفس الشيء بالنسبة للباكالوريا والعديد من مراحل التكوين المهني.

يتم توفير تعليم «إوسكالدون» (باللغة الباسكية) ذو جودة عالية في المراكز التربوية لهِرْنَني، تعليم مختلط يسهر على الحفاظ على المجال البيئي والذي يعزز التعاون بين الآباء والأمهات، الأساتذة والتلاميذ ويهتم بتنوع، يعزز اندماج المجتمع بأكمله وبصفة مجانية بالكامل. باختصار، يتعلق الأمر بمدرسة مندمجة مع البلدة تعكس الحياة المحلية فيها.

IKASTETXEAK

0–2 urte

- Haur Eskola publikoa
- Aratz Ikastola

المراكز المدرسية:

من 0 إلى 2 سنوات.

- مدرسة الأطفال العمومية
- Ikastola Aratz («مدرسة أراتز»)

2–12 urte

- Aratz ikastola
- Elizatxo ikastola
- Langile ikastola
- Txirrita herri eskola
- Urumea ikastola

12–16 urte

- Hernani Institutua
- Aratz ikastola

16 urtetik aurrera

- Udal ikastetxea: Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Hernaniko Lanbide Eskola: Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi mailako eta Goi mailako heziketa zikloak
- Hernani Institutua: Batxilergoa

Helduentzat (18 urtetik gorakoentzat)

- Helduen Heziketarako Ikastetxea

من 2 إلى 12 سنوات.

- Ikastola Aratz («مدرسة أراتز»)
- Ikastola Elizatxo («مدرسة إليزاتشو»)
- Ikastola Langile («مدرسة لانغيلي»)
- المدرسة العمومية تشيريتا
- Ikastola Urumea («مدرسة أورروميا»)

من 12 إلى 16 سنوات.

- ثانوية هِرْنَني
- Ikastola Aratz («مدرسة أراتز»)

ابتداء من 16 سنة

- المراكز البلدية: التكوين المهني الأساسي
- المدرسة المهنية لهِرْنَني: التكوين المهني الأساسي، المستوى المهني المتوسط والعالي للتكوين المهني
- ثانوية هِرْنَني: البكالوريا

الكبار (فوق 18 سنوات)

- المركز التربوي للكبار

MUSIKA ESKOLAK

مدارس الموسيقى

"HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

musikaeskola.hernani.eus
Atzieta kalea, 4
943 33 70 50
zuzen.musika@hernani.eus

Adin guztietako ikasleei zuzendua, musika-hezkuntza nahiz instrumentuak jotzen ikasteko.

المدرسة العمومية للموسيقى «هِرْنَني»

تعليم موجه للتلاميذ من كافة الأعمار ومن أجل تعلم الموسيقى والعزف على الآلات الموسيقية

"KANTUZ" MUSIKA ESKOLA

Aristizabal kalea, 5
943 33 70 41
hezkuntza@hernani.eus

Adin guztietako ikasleei zuzendua, gitarra jotzen ikasteko.

مدرسة الموسيقى «Kantuz» («كَنْتوزْ»)

موجه للأشخاص من جميع الأعمار، من أجل تعلم العزف على الغيتار



Haur, nerabe eta gazteak

الطفولة، المراهقة والشباب

Udal sail honetatik haur, nerabe eta gazteen garapen integrala sustatzen da. Aisialdi hezitzailea, informazioa-komunikazioa eta baliabideen eskaintza jorratzen ditu nagusiki.

يقوم هذا القسم التابع للبلدية بتعزيز التطوير الشامل للطفولة، المراهقة والشباب. يركز هذا القسم على الترفيه التربوي، المعلومات-التواصل وعرض الموارد.

Saileko lana zerbitzu eta jarduera ezberdinetan gorpuzten da, besteak beste:

- Gaztelekua
- #GAZTETUHERNANI gazte-kontseilua
- Gazte Lokaletarako Bitartekaritza Zerbitzua

يترجم عمل هذا القسم في مختلف الخدمات، الأنشطة على سبيل المثال لا الحصر:

- Gaztelekua («غاستِلِكُوا»).
- مجلس الشباب #GAZTETUHERNANI.
- خدمة الوساطة في فضاءات للشباب.

Aristizabal kalea 7, behea

943 575 435 /
943 337 004

605 715 607

Astelehenetik ostiralera
9:00 -14:00
أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 09:00 إلى 14:00

gazteria@hernani.eus

@gazteria
@gaztetuhernani
@gaztetuhernani

- Gazte Informazio Bulegoa
- Gazteen emantzipaziorako (alokairuak) dirulaguntzak

Udalekuak eta nerabeentzat ikastaro zein tailer anitzak ere antolatzen dira, eta astean zehar zein asteburuetarako ikasketetarako gelak ahalbidetzen dira.

Udal zerbitzuez gain, herri mailan ere gazte eta nerabeen aisialdirako elkarte eta eragile anitzak daude.

- مصلحة المعلومات الخاصة بالشباب.
- إعانات مالية من أجل استقلالية الشباب (الإيجار).

كما تنظم مخيمات صيفية ودورات وورشات موجهة للمراهقين، من خلال توفير صالات للدراسة، سواء على مدى الأسبوع أو خلال نهايته.

نجد أيضا على المستوى المحلي، بالإضافة إلى الخدمات التابعة للبلدية وجود مجموعة من الجمعيات والخدمات الترفيهية للشباب والمراهقين.



Informazio orokorra

معلومات للمصلحة العامة

HONDAKINAK

النفايات

Hernanin hondakinak atez ate biltzen dira, hau da, etxebizitza bakoitzak lau hondakin mota bereizten ditu: ontzi arinak, papera eta kartoia, organikoa eta errefusa. Udalak hondakin mota bakoitza jasotzeko egutegi bat ezarri du eta herritarrek dagokien zintzilikarioan uzten dute jaso beharreko hondakina.

Etxeko olioa eta beira ateratzeko, herrian zehar hainbat hondakin ontzi berde aurkituko dituzu. Horrez gain, eskuko telefonoak, pilak edota hondakin elektroniko txikiak jasotzeko Garbigune txikiak ere badira herriko puntu ezberdinetan.

في هِرْنَني، تؤخذ النفايات من أمام المنزل، بعد عزلها مسبقا داخل المنزل إلى أربعة أنواع: معلبات خفيفة، الأوراق والكارتون، العضوية والبقايا من كل شيء. لقد قامت البلدية بتحديد جدول زمني من أجل أخذ كل نوع من النفايات، بحيث يتم تعليق كل نوع من النفايات في العلاَّقة واليوم المناسبين.

ستجدون أوعية خضراء خاصة بالزيت والزجاج موزعة على العديد من النقاط في البلدة. بالإضافة إلى ذلك، ستجدون صناديق صغيرة في العديد من المناطق في هِرْنَني من أجل التخلص من الهواتف الجوالة، البطاريات أو النفايات الإلكترونية الصغيرة.

Hernaniko Udala,
Udaletxeko 4. solairua

900 840 090 /
943 337 000

hondakinak@hernani.eus

Azkenik, autokonposta eta auzokonposta egiteko aukera eskaintzen da (49 etxola daude herrian barreiatuta. Guztira, 1.644 familiak konpostatzen dute egun).

وفي الأخير، تتاح فرصة تحويل النفايات إلى أسمدة عضوية وكذلك القيام بذلك ذاتيا بشكل جماعي (49 مقصورة منتشرة في كل البلدة. حاليا توجد 1644 أسرة تقوم بتحويل النفايات إلى سماد عضوي).

GARRAIO PUBLIKOA

النقل العمومي

Hernanin garraio publiko zerbitzu zabala dago eskualdeko herriekin eta Donostiarekin konektatzen gaituztenak.

تتوفر هِرْنَني على خدمة واسعة للنقل العمومي، تربطنا بباقي بلدات المنطقة ودوناستيا-صان صباستيان.

- Herri barneko zerbitzua. Hernaniko auzo ezberdinak elkar lotzen dituen zerbitzua dago, *Hiribusa*. Ordutegia kontsultatzeko: www.hernani.eus/eu/udal-garraio-publikoa

- الخدمة الحضرية. توجد خدمة تربط مختلف أحياء هِرْنَني تسمى Hiribusa (هيريبوسا) . من أجل الاطلاع على الأوقات: **www.hernani.eus/eu/udal-garraio-publikoa**

- Eskualdeko gainerako herrietarako zein Donostiarako autobus zerbitzuaren lineak eta ordutegiak: www.lurraldebus.eus

- خدمة حافلات النقل الخاصة بباقي المنطقة وبدوناستيا: الخطوط والأوقات: في الموقع الإلكتروني لـ Lurraldebus (لورالديبوس): **www.lurraldebus.eus**

- Azkenik, Renfek eskaintzen duen tren zerbitzuak Irundik Legazpira arteko herriekin konektatzeko aukera ematen digu. Informazio eta ordutegiak kontsultatzeko: www.renfe.com/es/es/cercanias/cercanias-san-sebastian/horarios

- في الأخير، تمكن الخدمة التي توفرها السكك الحديدة التابعة لـ Renfe («رينْفي» الشبكة الوطنية للسكك الحديدة الإسبانية) من ربط البلدة بالمناطق الموجودة بين «إرونْ» و«ليغاسبيا». من أجل الاطلاع على المعلومات والأوقات: **www.renfe.com/es/es/cercanias/cercanias-san-sebastian/horarios**

MUGI TXARTELA

Garraio publikoak hobariak eskaintzen ditu, bidaia kopuruaren arabera prezioak aldatzen direlarik. Internet bidez edo prentsa saltokietan egin dezakezu.

بطاقة Mugi (موغي)

يتعلق الأمر ببطاقة نقل عمومي توفر تخفيضات حسب عدد الرحلات التي يتم القيام بها. يمكنكم طلبها عبر الأنترنيت أو في نقاط بيع الجرائد.

ZERGAK ETA TASAK

الضرائب والرسومات

Herritar guztiok, hainbat betekizun ere baditugu herrian bizi garen neurrian eta hainbat zerbitzu eta baliabide zerga eta tasen bitartez ordaintzen ditugu: hondakinak biltzea, ur zerbitzua edota ibilgailuen gaineko zerga dira horietako adibide batzuk.

كأشخاص لدينا جميعنا مجموعة من الالتزامات وقت تسجيلنا في السجل البلدي للسكان: نؤدي الضرائب والرسومات المترتبة عن استفادتنا من خدمات وموارد مثل جمع النفايات، خدمة المياه والخدمات المتعلقة بالعربات.

Herritarren zergen betebeharrak “Egutegi fiskala” izena duen udal dokumentuan jasoak daude. Hauen inguruko informazio gehiago eska dezakezu udaletxean bertan edota telefono hauetara deituz:

تجدون هذه الالتزامات الضريبية مفصلة في «الجدول الضريبي». يمكنكم طلب المزيد من المعلومات في البلدية أو من خلال الاتصال على الأرقام التالية:

Bilketa bulegoa:

- 943 33 70 34
- 943 33 70 45

مصلحة التحصيل:

- 943337034
- 943337045

Agustindarren plaza 6,
1. solairua

943 24 89 00

udaltzaingoa@hernani.eus

UDALTZAINGOA
شرطة البلدية

Gartzia Goldaraz, 3

POSTA ARRUNTA
خدمة البريد العادي

Correos. Posta arruntaren bidalketarako gune erreferentziazkoa da.

مصلحة البريد يتعلق الأمر بالمصلحة حيث يمكننا إرسال البريد العادي.



INTERNET-ERAKO SARBIDEAK

فضاءات للولوج إلى الأنترنيت

- Wifi puntuak. Honako bi puntu hauetan aurkituko duzu, erabiltzaile eta pasahitza eskatu behar da Hernaniko Liburutegian (dohainik).
  - Biteri Kultur Etxea
  - Udaletxea

- نقاط الوايفاي. هناك نقطتان للاتصال بخدمة الوايفاي. لكن من الضروري طلب اسم المستخدم وكلمة السر من مكتبة هِرْنَني (الخدمة مجانية).
  - Biteri Kultur Etxea (دار الثقافة بِتيري)
  - البلدية

Biteri Kultur Etxea

Nafar kalea, 18

Astelehenetik ostiralera 9:00–22:00
Larunbatetan 9:00–13:00

أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 09:00 إلى 22:00، أيام السبت من 09:00 إلى 13:00.

- Internet eta ordenagailuak:
  - KZ gunea. Biteri Kultur Etxean kokatuta dago, eta ordenagailuak eta internet zerbitzua eskaintzen ditu, doan.

- الأنترنيت والحواسيب:
  - يمكنكم الاستفادة من الخدمة في «KZ gunea». توجد هذ الخدمة في (دار الثقافة بِتيري) Biteri Kultur Etxea وتوفر بشكل مجاني استخدام الحواسيب وخدمة الأنترنيت.

Udaletxea

Gudarien plaza, 1

Astelehenetik ostiralera 8:00–14:00. Astearte eta ostegunetan 8:00–19:00

أوقات العمل: من الإثنين إلى الجمعة من 08:00 إلى 14:00. الثلاثاء والخميس: من 08:00 إلى 19:00

Hernaniko Udala

www.hernani.eus

Gudarien plaza, 1 - 943 337 000